



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

DONOSTIARRA
2040

TOP
ERA

00/

**KULTURA, IDENTITATEA ETA
NAZIOARTEKO
POSIZIONAMENDUA**

**Dokumentu honen prestaketan, Donostiako Udaleko
Euskara Zerbitzuak, Donostia Kulturako Zuzendaritzak
eta Donostia Turismoak parte hartu dute.**

1. Sarrera	4
1.1. Dokumentuaren helburua	4
1.2. Testuingurua eta marko estrategikoa	5
2. Diagnostikoa: egungo Donostia	6
2.1. Indarguneak	6
2.2. Ahulguneak eta aukerak	15
3. Zer Donostia izan nahi dugu 2040an?	19
3.1. Nortasun propioa duen eta mundura irekita dagoen hiria	19
3.2. Nazioarteko hiri berritzaile eta konektatua	21
3.3. Bizikidetzaren hiria	22
4. 2040rako erronka estrategikoak	23
4.1. Erronka kulturalak	23
4.2. Hizkuntzari eta identitateari lotutako erronkak	23
4.3. Nazioarteko posizionamenduari lotutako erronkak	24
4.4. Hiriari eta bizikidetzari lotutako erronkak	25
5. Eraldaketarako palankak	26
5.1. Kultura eta sormena	26
5.2. Euskara eta kultur aniztasuna	27
5.3. Berrikuntza eta ezagutza	28
5.4. Turismo jasangarria eta hiri-eredua	29
5.5. Lankidetzaren publiko-pribatua eta gobernantza	30
5.6. Hiriaren marka eta kontakizun partekatua	31
6. Donostia 2040: ikuspegi partekatu baten aldera	32

1.1. Dokumentuaren helburua

Dokumentu honen helburua Donostiak 2040. urtera begira izan behar duen norabide estrategikoari buruzko hausnarketa partekatu bat egiteko abiapuntua eskaintzea da.

Etorkizuneko hiri-eredua definitzeko garaian, ezinbestekoa da Donostiaren nortasunaren eta identitatearen oinarri diren elementuak erdigunean kokatzea; besteak beste, kultura, euskara, pertsonen mugimendua eta turismoa, bizikidetza, bizi-kalitatea eta nazioarteko proiektzioa.

Helburua ez da soilik hiri lehiakor edo erakargarri bat eraikitzea; nortasun sendoa, kohesio soziala eta ongizatea uztartuko dituen hiri-proiektu partekatua garatzea baizik

Dokumentu honek hiru helburu nagusi ditu:

Helburua	Edukia
Diagnostikoa egitea	Donostiaren egungo egoeraren diagnostiko labur bat egitea.
Abiapuntua	2040ra begirako hiri-ikuspegi partekatu bat osatzeko prozesuaren abiapuntu izatea.
Erronkak eta palankak identifikatzea	Etorkizun horretara iristeko erronka estrategikoak identifikatzea eta eraldaketarako palankak izan daitezkeenak mahai gainean jartzea, hausnarketa eta eztabaida sustatzeko.

Historikoki, Donostia bere nortasunagatik nabarmendu den hiria izan da. Kultura bizia du, nazioarteko ospea eta bizi-kalitatearekin lotutako irudi sendoa. Hala ere, XXI. mendeko eraldaketa sozial, ekonomiko, teknologiko eta kulturek erronka berriak ekarri dituzte, eta horrek etorkizuneko ikuspegi partekatu bat eraikitze beharra agerian jarri du.

1.2. Testuingurua eta marko estrategikoa

Munduko eraldaketa handien testuinguruan kokatzen da Donostiaren etorkizuneko hausnarketa. Globalizazioa, migrazio-fluxuak, mugikortasun globala eta turismoaren orokortzea, klima-aldaketa, digitalizazioa, demografia-aldaketak edo kultura-ohitura berriak hirien ezaugarriak eta rola edo papera birdefinitzen ari dira.

Izan ere, etorkizuneko hiriak ez dira soilik azpiegiturretan edo ekonomian lehiatuko; gero eta gehiago zentratuko dira bizi-kalitatean, identitatean, sormenean, talentua erakartzeko gaitasunean eta komunitate kohesionatuak eraikitzeke ahalmenetan. Eta testuinguru horretan, kultura, euskara edo turismoa hiriaren garapen estrategikoaren zutabeak dira.

Ardatza	Donostiari egiten dion ekarpena
Kultura	Berrikuntzaren, kohesioaren eta garapen ekonomikoaren motorra.
Euskara	Donostiaren nortasunaren, historiaren, bereizgarritasunaren eta komunitateko kideen arteko lotura.
Turismoa eta nazioarteko proiektzioa	Etengabeko berrikuntzan jarraitzeko eta oreka berriak bilatzeko akuilua.

Diagnostikoa: egungo Donostia

2.1. Indarguneak

2.1.1. Donostia, euskararen hiria

Donostia Euskararen Hiri gisa proiektatu da, eta hamaika arrazoi daude hori frogatzeko. Euskarak XX. mendearen bigarren zatian izan duen bilakaera positiboa oso nabarmena izan da, eta euskal gizarteak eta erakundeek egindako ahaleginari esker, azken lau hamarkadotan goranzko bidea egin du euskararen komunitateak EAEn.

Hizkuntza-gaitasuna	1981	2021	Bilakaera
Euskaldunak	36.679 pertsona, %22	83.866 pertsona, %47	Euskaldunen kopurua eta pisua nabarmen handitu dira.
Ia-euskaldunak	45.193 pertsona, %27	38.337 pertsona, %21	Ia-euskaldunen pisua jaitsi egin da, euskaldunen hazkundearekin batera.
Euskara hitz egin edo ulertzen dutenak	%49 inguru	%68 inguru	Donostiarren bi herenek euskaraz hitz egin edo ulertzen dute.

Eustat 2021, Donostiako datuak

Gainera, Donostiak jasotzen duen gipuzkoarren fluxua etengabea da: horietatik % 75ek euskara ulertzen du, eta %46k lehentasunez erabiltzen du (Eustat 2021).

Halaber, donostiarren zati handi batek euskararen balio soziala aitortzen du eta hizkuntzarekiko atxikimendua azaltzen du. Eusko Jaurlaritzak 2022an egindako ikerketaren arabera, haur guztiek euskara ikasi beharko luketela iritzi du gizartearen % 89k eta Administrazioan sartzeko euskara jakin beharko litzatekeela % 75ek.

Donostia da kopuru erlatiboetan euskaldun gehien dituen hiriburua, eta donostiarren bi herenak euskaraz hitz egin edo ulertzen du

Historian zehar, Donostia aitzindari izan da euskal kulturaren alor nagusienetan:

- Euskarazko antzerkigintzan.
- Euskal prentsa idatzian.
- Euskal liburugintzan.
- Euskal kantagintzan.
- Bertsogintzan.
- Ikastolen mugimenduan.

Gaur egun, euskal musikagintzak, zinemagintzak edo antzerkigintzak lotura estua dute Donostiarekin. Euskal kulturarentzat ezinbesteko motorra izaten jarraitzen du hiriak: Zinemaldiak euskal zinemagintzari proiektzioa ematen dio; Donostia Antzerki Sariak euskal antzerkigintzari indarra eta ikusgarritasuna eman dizkio; eta azken urteetan euskal musika talde eta abeslarien uzta emankorra nabarmena da.

Euskararen biziberritze-prozesuan ere, Donostia aitzindari eta eredu izan da hiriburuen artean:

- **Administrazioa:** 7 euskalduntze-plangintza onartu eta gauzatu dira azken 35 urteetan, eta Udaleko langileen %87 bere lana euskaraz egiteko gai da.
- **Plangintza estrategikoa:** Donostian Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoa 2026-2036 dokumentuak orain arteko lorpenak eta etorkizuneko erronkak definitzen ditu.
- **Komunitatea:** euskalgintzako eragileek (euskaltegiak, BAGERA, auzoetako euskara batzordeak) eta euskaraz bizitzeko nahia adierazten duten herritarrek sare esanguratsua osatzen dute.
- **Parte-hartzea:** Korrika, Euskaraldia eta euskararen aldeko bestelako ekimenetan bertako eragileek eta herritarren parte-hartzea azpimarragarria da.
- **Ekonomia eta teknologia:** euskarari lotutako sektore ekonomikoak, hizkuntza-industria, ikerketa-zentroak eta unibertsitateak, hein handi batean, Donostian edo inguruan biltzen dira.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz egindako Euskararen eragin ekonomikoa (Siadeco, 2020) txostenean jasotzen denaren arabera, euskarari lotutako sektoreek 24.848 lanpostu sortzen dituzte, enplegu osoaren %8, eta Barne Produktu Gordinaren %5,34 euskararekin lotuta dago. Txosten horren arabera, gainera, Donostian biltzen dira sektore honi, baina baita teknologiarekin eta adimen artifizialarekin lotutako hizkuntza-industria, ikerketa-zentro eta unibertsitateak ere: Hitz zentroa, Vicomtech, BCBL...

2.1.2. Kultura eta sormena

Kultura Donostiaren irudiarekin eta sustraiekin erabat lotuta dago aspalditik: kultur hiriburua izan zen, ekitaldi eta zerbitzuekin harro daude herritarrek...

Kultura hezkuntza, identitatea, sormena eta parte-hartzea uztartzen dituen politika publiko estrategiko gisa ulertzen du Donostiako Udalak

Kultura denen artean sortzen da, herritarrek eta eragile publiko zein pribatuek kulturaz gozatzen dutelako, identitatea eraikitzen duten bitartean.

> Kultur eskaintza

8

Donostia Kultura ez da hiriko kultur eragile bakarra, baina bere datuek hiriaren kultur dinamika ulertzeko erreferentzia eskaintzen dute:

Adierazlea	DONOSTIA KULTURako 2025eko datuak
Kultur Etxeen Sarea	1.008.321 bisitari izan zituen topaleku, sorkuntza eta kultura-bitartekaritzako espazioetan
Zerbitzuen erabiltzaileak	656.291 erabiltzaile
Jardueretako parte-hartzaileak	315.851 parte-hartzaile
Ikastaroak	10.240 parte-hartzaile
Sorkuntza bultzatzeko inbertsioa	13.645.875 euro
Diru-laguntzak	754.980 euro bideratu ziren hiriko hainbat programa eta jaialditara.
DK Txartela	130.000 lagunetik gora

> Kultur ekipamenduak

Donostia hiri ertaina izan arren, kultur sare anitz eta sendoa du: 121 kultur ekipamendu identifikatu dira. Formakuntza-zentroez gain, identifikatutako ekipamenduen hiru heren publikoak dira, Administrazio Publikoen apustu irmoa agerian utziz.

Ekipamendu motak eta erreferentziak

Eskala edo funtzioa	Ekipamendu edo espazio mota	Espazioak
Gertuko kultura	Auzo mailako kultur etxeak eta liburutegiak	Kultur etheen eta liburutegien sarea
Zentro estrategikoak	Lurralde, erkidego edo nazioarte mailako eragina duten ekipamenduak	Tabakalera, Koldo Mitxelena, Santa Teresa
Fundazio eta erakundeetako espazioak	Kultur programazio eta bitartekaritzarako espazioak	Kutxa Fundazioko espazioak
Arte garaikidea eta erakusketa	Arte-galeriak eta museo-sarea	Arte-galeria pribatuak, San Telmo Museoa, Chillida Leku
Musika eta arte eszenikoak	Antzokiak, areto pribatuak eta musika-erakundeak	Antzoki Zaharra, Victoria Eugenia Antzokia, Dabadaba, Doka, Euskadiko Orkestra
Ikus-entzunezkoak eta zinema	Zinemarekin eta ikus-entzunezko ondarearekin lotutako ekipamenduak	Euskadiko Filmategia, Zinemaldiaren inguruko espazioak
Museoak eta ondarea	Hiriaren memoria, itsas ondarea, artea eta bestelako edukiak lantzen dituzten espazioak	Itsas Museoa, Aquarium, Rezola

Horiek guztiek Donostia proiektzio handiko kultura-hiri bihurtzen dute.

Donostiak gertuko kulturaren eta proiektzio handiko ekipamenduen arteko oreka du: auzoetako kultur etxe eta liburutegietatik hasi, eta lurralde, erkidego edo nazioarteko zentro estrategikoetara arte

Auzoen arteko banaketari erreparatuta, erdialdea da kultura-ekipamendu gehien biltzen dituen eremua: %27,08 bertan kokatzen da. Pisua bereziki handia da, hirian zein lurraldean erreferentziazkoak diren antzoki, zinema-areto eta museoak bertan pilatzen direlako. Segidan, Egia, Altza, Intxaurren eta Antigua auzoak kokatzen dira, auzo mailako kultura-ekipamenduen presentzia handia baitute.

> Kultur eragileak

Sektore publikotik haratago, 2019ko datuen arabera, Gipuzkoako enpresen %5,7 industria kulturalera enpresek osatzen dute, eta Euskadiko kultur enpresen erdiak Bizkaian eta Gipuzkoan dute egoitza nagusia. Besteak beste, ikus-entzunezko ekoiztetxeak, musika-konpainiak eta antzerki-taldeak Donostiako ekonomiaren parte dira.

Herritar askok elkarte formal eta informaletan parte hartzen dute: konpartsak, abesbatzak, danborradak, dantza-taldeak.... Guztira, 1.000 elkarte baino gehiago daude erregistratuta hirian, eta haietako 400 inguru kulturarekin lotuta daude. Antolatzen dituzten ekimen kopurua albo batera utzita, egiten duten ekarpena ezinbestekoa da.

Festen kasuan, hain zuzen, kohesio eta nortasun osagai garrantzitsua dira Donostiarentzat: San Sebastian Eguna, Kaldereroak, Inude eta Artzainak, Inauteriak, Aste Nagusia...

Eremua	Indargunea
Eskaintza	Programazio zabala eta askotarikoa urte osoan
Ekipamenduak	121 kultur ekipamendu
Gertuko kultura	Kultur etxeen eta liburutegien sareak auzoetako dinamika indartzen du.
Erreferentziazko zentroak	Hiri, lurralde eta nazioarteko proiektzioa duten ekipamenduak
Eragileak	Sektore publiko, pribatu eta herritarren sare zabala
Festak eta tradizioak	Kohesio eta nortasun osagai garrantzitsua dira

2.1.3. Gastronomia eta bizimodua

Gastronomia Donostiaren nortasunaren zutabe nagusietako bat da, eta hiriaren irudi globalaren eraikuntzan funtsezko rola du.

Sektore ekonomiko indartsua izatetik harago, gastronomia komunitatea artikulatzen duen eta hiriaren bizi-kalitatearen parte den adierazle kulturala da

Ezaugarria	Adierazleak
Munduko gastronomian erreferente	Michelin izarrak, pintxoekultura, sukaldaritza-eskolak eta sormen gastronomikoa Donostiaren marka globalaren parte dira.
Bizimoduarekin lotura estua	Gastronomia ez da kontsumo-esperientzia hutsa; gizarte-harremanen, auzotartasunaren eta hiriko erritmoaren parte da.
Tradizioa eta berrikuntza	Belaunaldi berriek gastronomia berrasmatu dute, tokiko produktua eta jasangarritasuna ardatz hartuta.
Ezagutza eta berrikuntza	Basque Culinary Center eta GOe dira Donostiaren gastronomiaren eraldaketaren motor nagusiak.
Nazioarteko erakargarritasuna	Gastronomia da Donostiara etortzeko motibo nagusietako bat, eta hiriaren posizionamendua sendotzen du.

11

2.1.4. Talentua garatzeko eta erakartzeko gaitasuna

Donostiak talentua erakartzeko gaitasun handia du, baina erronka nagusia talentu hori mantentzea eta proiektu berriak sortzeko baldintzak indartzea da.

Eremua	Indarguneak
Ezagutza- eta ikerketa-ekosistema	CIC nanoGUNE, Donostia International Physics Center, Biodonostia, Tecnun, Musikene eta bestelako eragileak.
Bizi-kalitatea	Hiriaren tamaina, segurtasuna eta paisaia talentuaren erakarpenerako elementu nagusiak dira.
Nazioarteko komunitatea	Ikertzaileak, sortzaileak eta ekintzaileak integratzeko politikak hiriaren dinamismoa handitzen dute.

2.1.5. Hiri-paisaia eta bizi-kalitatea

Donostiaren hiri-paisaia (itsasoa, mendia, hiriaren tamaina, auzoen egitura) hiriaren nortasunaren parte da, eta bizi-kalitatearen adierazle nagusia.

Gakoa	Indarguneak
Hiriaren tamaina	Distantzia laburrak, irisgarritasuna eta auzoen arteko konektibitatea bizi-kalitatearen oinarri dira.
Ingurune paregabea	Itsasoa, hondartzak, parkeak eta naturguneak hiriaren eguneroko bizitzan integratuta daude.
Espazio publikoaren kultura	Kalea, plaza eta pasealekuak Donostiako bizikidetzaren eszenatoki naturalak dira.
Jasangarritasunaren erronka	Klima-aldaketak, itsas mailaren igoerak eta turismoaren presioak hiri-paisaia zaintzeko politika berriak galdatzen dituzte.

2.1.6. Nazioarteko proiektzioak

Azken hamarkadetan, Donostia hiri ezaguna bihurtu da nazioartean, bereziki, bertako kultura, gastronomia eta bizi-kalitateagatik. Hiriak kulturaren bidez egiten du mundurako zubia, eta bere nortasun bereizgarria, hala nola, euskararen presentzia eta kultura propioa, modu erakargarrian erakutsi ditu.

Diplomazia kulturala Donostiaren nazioarteko proiektzioaren zutabe nagusietako bat da: Zinemaldiak, Jazzaldiak, Musika Hamabostaldiak, dFERIAk, Beldurrezko Asteak edo Giza Eskubideen Zinemaldiak Donostia hiri kultural ireki, sortzaile eta kosmopolita gisa sendotu dute.

Nazioarteko proiektzioaren ardatz nagusiak

Ardatza	Ekarpena
Kultura	Jaialdiak eta kultur ekitaldi nagusiak hiriaren marka globalaren parte dira.
Euskara eta kultura propioa	Euskararen presentzia eta ikusgarritasuna hiriaren identitate garaikidearen eta kontakizunaren adierazle garrantzitsua da.
Gastronomia	Pintxoen kultura, tokiko produktuen tradizioa, goi-mailako sukaldaritza, eta Basque Culinary Center eta GOe bezalako zentroak, Donostiaren nazioarteko kokapenaren funtsezko osagaiak dira.
Zientzia eta ezagutza	Ikerketa-zentro aurreratuek, unibertsitateek eta berrikuntza-ekosistemak Donostia zientziaren eta ezagutzaren hiri gisa indartzen dute.
Sormena	Kulturaren eta sormenaren industriek (ikus-entzunezkoak, musika, diseinua, bideo-jokoak, kultura digitala...) hiriaren sormen-potentziala indartzen dute.
Sareak	Eurocities, UNESCO, UCCN eta bestelako sareetan parte hartzeak Donostiaren posizionamendua sendotzen du.

Donostiaren nazioarteko proiektzioa kulturaren, euskararen, gastronomiaren, zientziaren, sormenaren eta bizi-kalitatearen arteko uztarketan oinarritzen da

2.1.7. Turismoaren bilakaera

Azken 120 urteetan, Donostiaren garapena turismoari estuki lotuta egon da. XIX. mendearen amaieraz geroztik, hiria Europako eliteen udako helmuga gisa sendotu zen, eta garai hartan sortu ziren gaur egun ere hiriaren nortasunaren parte diren elementu asko: Kontxako pasealekua, turismoarekin lotutako lehen azpiegiturak, kultur eskaintza bereizgarria eta hiriaren nazioarteko proiektzioa.

Denborarekin, Donostiak turismo-eredua egokitzen jakin du: eguzki eta hondartza bila zetozenen helmuga izatetik, kultura, gastronomia, ekitaldi profesionalak, natura eta bizi-kalitatearekin lotutako balioetan oinarritutako hiri gisa kokatzera igaro da. Turismoa, beraz, ez da azken hamarkadetako fenomeno bat, hiriaren eraldaketa ekonomiko, sozial eta urbanoaren elementu historikoetako bat baizik.

Bilakaeraren adierazleak

Hotel-establezimenduetako sarrerak 520.000 pertsona ingurutik milioi bat bisitari baino gehiagora igaro dira (2014-2024 aldian).

- OSTATU-GAUAK: 1.029.670 sarrera eta 2.132.783 ostatu-gau (2024)
- HAZKUNDEA: 2016-2025 aldian, bisitari-kopurua %64 baino gehiago hazi da eta ostatu-gauak %67 inguru handitu dira.
- BISITARIEN JATORRIA:
 - 2014an bisitarien %49 inguru ziren atzerritarrak; 2025ean %62 dira.
 - Nazioarteko merkatu nagusiak: Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Alemania, Herbehereak eta Italia.
 - Estatuko merkatu nagusiak: Madril, Katalunia, Euskadi, Gaztela eta Leon, Andaluzia eta Valentzia.

Azken hamarkadan, Donostiak kalitatean eta balio erantsian oinarritutako turismo-eredua sendotu du, eta hirira iristen den bisitariaren profila, oro har, kultura, gastronomia, zientzia, ezagutza, ondarea, natura eta bizi-kalitatearekin lotutako esperientziak bilatzen dituen pertsona da.

Bilakaera horrek erakusten du Donostia gero eta helmuga globalagoa dela, nazioarteko merkatu estrategikoetan presentzia handiagoa duela, eta, aldi berean, hiriaren balioekin bat datorren bisitari-profila erakartzen duela. MICE turismoaren kasuan, halaber, nagusi dira ezagutzarekin, zientziarekin, berrikuntzarekin eta sektore estrategikoekin lotutako kongresu eta topaketa profesionalak, hiriaren nazioarteko posizionamendua indartzen dutenak.

Historikoki, turismoa izan da Donostiaren eraldaketa ekonomiko, sozial eta urbanoaren elementu garrantzitsuenetako bat, eta gaur egun, kultura, gastronomia, ezagutza eta bizi-kalitatearekin lotutako balioetan oinarritzen da

2.2. Ahulguneak eta aukerak

2.2.1. Euskararen hiztun komunitatea eta erabilera soziala

Euskararen ezagutzan asko aurreratu bada ere, azken aldiko zenbait joerek erakutsi dute euskararen indarberritze-prozesua moteltzen ari dela: kaleetan euskararen erabilerak ez du aurrera egiten; euskal hiztun gehiago egon arren, askok ez dute euskaraz hitz egiteko behar besteko erraztasunik; transmisioa mantentzen da, baina ez du bilakaera positiborik; eta lan-munduan ere ez du behar adina indarrik.

Beste arlo batzuetan bezala, euskararen bilakaeraren joera-aldaketa horretan eragin zuzena dute globalizazioak (kontsumo-ohituren aldaketa, gizarte gero eta indibidualistagoa) eta jaiotza-tasaren jaitsieraren eta migrazio-fluxuen eraginez demografian izandako aldaketek, besteak beste. Gainera, kanpora begirako proiektio handia duen hiria izanik, hizkuntza handien alde egiteko arriskua dago.

Donostiako Udalaren eskariz Siadeco etxeak egindako Donostiako datu demolinguistikoen bilakaeraren prospekzio-ikerketa, 2036 epemuga lanean, zenbait zantzu kezagarri ageri dira:

Zantzia	Adierazlea
Migrazio-fluxuak	2036an, 25-44 urte arteko donostiarren %40 atzerrian jaiotakoa izango da.
Euskararen ezagutza	Gora egiten jarraituko du, baina hazkunde-erritmoa motelagoa izango da.
Gaitasun erlatiboa	Euskaldun gehiago izango dira, baina gero eta gehiago izango dira erdaraz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak.
Zahartzea	Biztanleria euskalduna zahartze-prozesuan sartuko da.
Etxeko erabilera	Etxean euskara bakarrik erabiltzen dutenen pisua mantendu egingo da, baina gorakada izango du euskara eta gaztelania/beste hizkuntza batzuk erabiltzeko joerak.

15

Testuinguru honetan Donostiak euskararen biziberritzean dituen aukerak aprobetxatzen jakin behar dugu:

- Euskararen biziberritze prozesuan dugun esperientzia luzeak norabide berriak bilatzen lagunduko digu
- Jatorri anitzeko gurasoen seme-alabek Hezkuntza sisteman euskara ikasteko aukera bermatua dago
- Gazteen ezagutza ia orokortuak oinarri sendoa eskaintzen dio erabilerari (aisialdian, kirol esparruan edo kultur sorkuntzan eta eskaintzan eraginez)
- Euskaraz eroso moldatzen den komunitatea sendotzeko urratsak eginaz, euskarak prestigioa irabaziko du

2.2.2. Kulturara sarbidea eta parte-hartzea

Eskaintza oparoa bada ere eta ekipamendu anitz egon arren, kulturarako sarbideari eta parte-hartzeari lotutako hainbat hutsune detektatu dira:

- Donostiak egitura sendoa du kulturaren kontsumoan eta bitartekaritzan. Aldiz, tokiko sorkuntza eta ekoizpenaren esparruan aurrerapausoak emateko aukera estrategikoak identifikatu dira arlo publikoan, bereziki, tokiko sortzaileei eta diziplina berriei begira.
- Donostiako kultur etheen sarearen izaera inklusiboa eta hurbilekoa izan dadin, zerbitzuen banaketan eta orientazioan doikuntzak egin behar dira: auzo batzuek (Martutene, Loiolaren zati bat, Ibaeta eta Añorga) arreta berezia behar dute.
- Belaunaldi berriek kultura modu digitalean sortu eta kontsumitzen dutenez, hiriko hainbat espazio publiko teknologikoki eguneratzeko beharra dago.
- Kanpotik etorritako herritar askorentzat kulturguneak dira gizarteratzeko lehen espazioa. Horregatik, funtzionamendua ulertu dezaten berritu behar da, eta harremanak hobetu.
- Sektore pribatu eta publikoaren arteko oreka eta elkarlana hobetzeko aukera dago eskaintzari eta kudeaketari dagokionez.

Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiak ZMZ? Haur eta nerabeen ahotsa, 2022 ikerketan aztertutako informazioaren arabera, kultura ez dago haur eta nerabeen lehentasunen artean; aldiz, astean behin edo bitan gutxienez eta maiztasun handienarekin egiten dituzten jardueren artean kirola da nagusi.

Gazteen ohiko jarduerak

Jarduera	Maiztasuna
Etxeke lanak egitea eta ikastea	%94,8
Kirola egitea	%93
Telebista ikustea	%85,6
Etxean laguntzea	%76,8
Bideo-jokoetan aritzea	%67,3

2.2.3. Gastronomía eta bizimodua

Donostiako gastronomía hiriarren nortasunaren, kulturaren eta nazioarteko posizionamenduaren zutabe nagusietako bat da, baina bere garapen iraunkorrari lotutako hainbat ahulgune eta aukera detektatu dira.

- Alde batetik, sektoreak belaunaldi-erleboari egin behar dio aurre, bai ostalaritzan, baita tokiko produktuen ekoizpenean ere, talentua erakartzeko eta mantentzeko gero eta zailtasun handiagoa baitu.
- Bestetik, eskaintzaren garestitzeak eta kontsumo-ohituen aldaketak gastronomiaren irigarritasunari buruzko eztabaidak sortu ditu, bereziki, herritarren ikuspegitik.
- Gainera, izandako arrakastak hainbat tentsio-gune eragin ditu: establezimendu jakin batzuetan pilaketak eta ilarak, espazio publikoaren erabileraren inguruko eztabaidak, eta hiriarren benetakotasuna eta nortasun gastronomikoa mantentzeko beharra, merkataritza eta ostalaritza-eskaintzaren homogeneizazioaren edo frankizien hazkundearen aurrean.

Testuinguru horretan, aukera estrategikoa da gastronomía tokiko kultura, bizimodua, berrikuntza, produktuaren kalitatea eta komunitatearen kohesioa indartzen dituen balio gisa erakustea

2.2.4. Talentua garatzeko eta erakartzeko gaitasuna

Gero eta handiagoa da talentua erakartzeko eta, bereziki, talentua hirian bertan mantentzeko lehia. Epe luzera, etxebizitzaren garestitzeak, bizi-kostuaren igoerak eta profil kualifikatuentzat erakargarriak diren lan-aukerak sortzeko zailtasunek eragina izan dezakete Donostiaren lehiakortasunean.

Horrez gain, Donostiak ospe eta irudi sendoa badu ere nazioartean, hobetzeko aukera nabarmenak ditu zientziaren, berrikuntzaren, ekintzailetzaren eta ezagutzaren hiriburu gisa duen posizionamenduan. Izan ere, hiriarren erronka ez da soilik bisitariak erakartzea, ikertzaile, ekintzaile, profesional kualifikatu eta inbertitzaileentzat ere erreferentziazko lekua bihurtzea baizik, bertan bizitzeko, ikasteko, ikertzeko eta proiektu berriak garatzeko baldintza egokiak eskainiz.

Etorkizuneko aukera nagusietako bat da turismoaren, ezagutzaren, berrikuntzaren eta bizi-kalitatearen arteko loturak indartzea, Donostiaren balioekin eta hiri-ereduarekin bat datorren talentua eta bisitari-profila erakartzeko.

2.2.5. Turismoa eta bizikidetza

Donostiak nazioarteko helmuga erakargarri gisa duen posizioa mantendu eta indartu nahi du, baina gaur egungo testuinguruan turismoaren hazkundeak sortzen dituen tentsioak eta erronkak modu arduratsuan kudeatzea funtsezkoa da.

Hiriaren erronka ez da turismoaren hazkundera lehenestea, gaur egungo turismo-ereduaren kalitatea mantentzea eta haren garapena modu jasangarrian kudeatzea baizik, herritarren ongizatea, hiriaren nortasuna eta bizikidetza zainduz.

2.2.6. Nazioarteko proiektzioaren eta benetakotasunaren arteko oreka

Hiriaren nortasuna eta kultura turismoarekin bateragarriak izan daitezke, eskaintzak eta egutegiak ondo neurtzen badira, neurri zuzentzaileak aplikatzen badira eta Maite duguna zaintzeko filosofia gure artean eta kanpokoekin partekatzen badugu.

Horretarako, gure ondare kultural aberatsa zaindu eta hobetu behar dugu, ekitaldi ereduen arteko oreka mantenduz; hau da, jaialdiak gure kulturaren parte garrantzitsu direla onartuta, baina eskala txikiko programei ere lekua eginez.

Zer Donostia izan nahi dugu 2040an?

3.

2040ra begira, Donostiak nortasun propioa duen eta mundura irekita dagoen hiria izan nahi du: hiri kulturala eta sortzailea, hiri euskalduna, gastronomiaren hiria, zientziaren hiria, eta nazioartearekin konektatutako hiria, bizikidetza oinarri. Atal honetan jasotako elementuak Donostiaren izaera osatzen duten ezaugarri multzo gisa ulertu behar dira.

3.1. Nortasun propioa duen eta mundura irekita dagoen hiria

3.1.1. Hiri kulturala eta sortzailea

> Kultura, kohesioaren eta ongizatearen motor gisa

Kultura ez da soilik aisialdirako edo turismorako tresna; gizarte-kohesioa sendotzeko eta herritarren ongizatea bermatzeko funtsezko motorra da. Euskarak, tradizioek, festek eta kulturak komunitateko kideen sentimendua indartzen dute, eta herritarren ongizate emozionalean eragiten dute, besteak beste, antsietateari edo bakardadeari aurre egiten laguntzen dutelako.

Horregatik, erakunde publiko eta pribatu sendoak behar dira, kulturak herritarren bizitzan eragiteko duen ahalmena indartzeko.

> Kultura irisgarri eta parte-hartzailea

Giza balioetan oinarritutako kultur eredu solidario eta parte-hartzailea behar du hiriak, kontsumo pasibotik aldenduta. Horretarako, funtsezkoa da kulturaren irisgarritasuna sustatzea, askotariko eskaintza orekatua diseinatuz. Herritar guztiek, haien egoera ekonomikoa, fisikoa, intelektuala, adina edo jatorria edozein dela ere, kultura diseinatzeko, sortzeko eta gozatzeko aukera berbera izan behar dute.

> Berrikuntzaren aldeko kultura sortzailea

Zientzia eta ezagutza kulturaren parte garrantzitsuak dira, eta ezinbestekoa da elkarrekin kudeatzea, humanismoaren alde. Gizartean emandako aldaketak eta horien ondoriozko kultura-zerbitzuen bilakaera kontuan hartuta, digitalizazioa eta teknologia eguneroko bizitzan txertatu behar dira.

19

> Tokiko kultura mundu globalean

Donostiako eta donostiarren kultur-ondarea iraunarazi behar dira eta, era berean, kanpoko joerekin konektatuta egon behar dira, Donostiako eskaintzak eta kudeaketak erreferente izaten jarraitu dezaten.

3.1.2. Hiri euskalduna

> Euskara, kohesiorako elementu bereizgarria

Hizkuntza ez da komunikazio-tresna hutsa, gizarteko egiturazko osagai nagusietako bat da, bere baitan jasotzen baititu mundua ulertzeko moduak, balio-sistemak eta komunitatearen memoria kolektiboa.

Euskararen kasuan, dimentsio horiek are nabarmenagoak dira, hizkuntza gutxitua izateak, bere ibilbide historikoak eta gaur egungo biziberritze-prozesuak balio estrategiko berezia ematen diotelako. Euskarak zeregin historikoa izan du euskal komunitatearen kohesioan eta bereizgarritasunean, eta haren bidez transmititu da herri honen ondare material eta immaterialaren zati handi bat.

Literatura, musika eta ikus-entzunezko sorkuntza euskararen bidez garatzeak tokiko kultura sendotu du, eta horregatik, euskararen biziraupena ez da soilik hizkuntza bat mantentzea; kultur sistema oso baten iraunkortasuna bermatzea baizik.

> Kultur aniztasuna eta hiri-identitate berriak

Globalizazioak hartuko duen norabidea zehazki jakin ez arren, nazioarteko konexioak indartzearekin batera, tokiko sareak sustatzeko beharra ere agerian geratu da. Etorkizuneko erronkei aurre egiteko, lurrian eta kulturari sustraitutako dimentsio kolektibo sendoa izatea funtsezkoa izango da komunitateentzat.

Gaur egun, Donostian 100 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Gehienak, euskara bezala, gutxituak dira, eta hizkuntza erraldi eta hegemoniko batekin elkarbizi dira. Baina hizkuntza-aniztasuna bermatzeko, ezinbestekoa da baldintza bat betetzea: hizkuntza bakoitzak bere funtzioak eta erreproduzio-esparrua izatea. Euskararen hitun-komunitateak, bere aldetik, sustraiak eskaintzen ditu Donostian, nor izateko aukera, eta,aldi berean, globalizazioak eskaintzen duen guztia baliatzeko aukera, ezeri uko egin gabe.

Printzipioa	Edukia
Euskara eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza	Ezin da neutroa izan: hizkuntza hegemonikoak gutxituaren garapena bermatu behar du. Euskarak lur bakarra du bizitzeko.
Nazioarteko komunikazioa	Nazioarteko komunikaziorako hizkuntza bat behar da, baina hizkuntza gutxituen garapena kaltetu gabe.
Tokiko hizkuntza-aniztasuna	Hirira iritsi diren hizkuntza guztiekin errespetuz eta elkarbizitzan aritzeko testuinguruak sortu behar dira.

3.1.3. Gastronomiaren hiria

2040an, Donostiak gastronomiarekin lotura estua izaten jarraitu nahi du. Baina ez turismo-erakargarri gisa ulertuta, nortasunaren, kulturaren, bizimoduaren eta ongizatearen adierazpen nagusietako bat bezala baizik.

Etorkizuneko gastronomia-ereduak tokiko eta garaiko produktuan, kalitatean eta lurraldearekiko loturan oinarrituta egon behar du, itsasoaren, landa-ingurunearen eta hiriaren arteko harremana indartuz. Eredu horrek, era berean, tradizio gastronomikoa eta ondare kulturala zaindu behar ditu (pintxoen kultura, merkatuak, tokiko ekoizleak eta auzoetako ostalaritza-sarea), eta aldi berean, berrikuntza-gaitasuna indartu, ezagutzarekin, zientziarekin, osasunarekin, jasangarritasunarekin eta sormenarekin lotutako ekimen berriak sustatuz.

Gastronomiak herritarren eguneroko bizitzaren parte izaten jarraitu behar du: irisgarria, autentikoa eta askotarikoa izan behar du, tokiko merkataritzaren, auzoen bizitasunaren eta komunitatearen kohesioaren alde egiten duena. Halaber, hiriaren nazioarteko proiektzioaren elementu bereizgarri izaten jarraitu behar du, betiere, benetakotasuna eta nortasun propioa zainduz.

Donostiarentzat, gastronomia iragana eta etorkizuna lotzen dituen balio estrategikoa da: tradizioan du jatorria, tokiko produktuak ditu oinarri, eta aldi berean, berrikuntza eta mundu zabala ditu jomugan.

3.1.4. Zientziaren hiria

2040an, Donostiak Europako erreferente izan nahi du zientziaren, berrikuntzaren eta ezagutzaren alorrean, nortasun propioa duen eta mundura irekita dagoen hiri gisa posizionatuta.

Azken hamarkadetan garatutako ikerketa-ekosistema sendoak horretarako oinarria eskaintzen du: CIC nanoGUNE, CIC biomaGUNE, Vicomtech, BCBL, Polymat, DIPIC, IIS Biodonostia, Tecnun edo MUBIL bezalako erakundeek proiektio handiko ezagutza-sarea osatzen dute egun, eta Donostia ikerketaren eta berrikuntzaren mapan kokatu dute.

Etorkizunera begira, hiriaren erronka ez da soilik puntako ikerketa-zentroen kokaleku izatea, ezagutza hori gizartearen, ekonomiaren eta hirigintzaren eraldaketaren zerbitzura jartzea baizik. Horretarako, funtsezkoa izango da zientziaren, enpresen, ekintzailetzaren, kulturaren eta herritarren arteko loturak indartzea, berrikuntza hiriaren eguneroko bizitzaren parte izan dadin.

Illunberen inguruan aurreikusitako eremuak etorkizuneko berrikuntza-, ezagutza- eta talentu-gune gisa garatzeko ahalmena du, eta ikerketa, teknologia, enpresa berritzaileak, prestakuntza aurreratua eta nazioarteko lankidetzak uztartuko dituen polo estrategikoa izango da.

3.2. Nazioarteko hiri berritzaile eta konektatua

2040rako, Donostiak nazioarteko hiri gisa duen presentzia indartu nahi du espezializazioaren eta kalitatearen aldagaien bidez. Helburua da hiriak bere identitate propioa Europan eta munduan

proiektatzea, sare globaletan aktiboki parte hartuz eta eragile estrategiko gisa kokatuz. Ondorioz, Donostia ideiak, politikak eta proiektu berritzaileak sortu eta partekatzen dituen hiria izango da.

Era berean, maila akademiko, profesional eta ekintzailean talentua erakartzeko gai izan nahi du. Horretarako, azpiegitura aurreratuak, ekosistema kolaboratiboak eta bizi-kalitate handia eskaini behar ditu, pertsonak ez ezik, proiektu estrategikoak, startup berritzaileak eta nazioarteko ikerketa-ekimenak erakartzeko.

Etorkizuneko Donostia hiri jasangarria eta bizigarria izango da, klima-erronkei aurre egiteko konpromiso argiarekin. Mugikortasun jasangarria, energia-trantsizioa, espazio publikoaren kalitatea eta naturarekiko oreka izango ditu oinarri, eta hiri-kalitatea ongizate sozialarekin, kohesioarekin eta bizi-proiektu duinarekin lotuta egongo da.

3.3. Bizikidetzaren hiria

Donostiak pertsonentzat pentsatutako hiria izan nahi du 2040an, bizikidetza, ongizatea eta komunitatearen kohesioa erdigunean jartzen dituen. Nazioartera irekita dagoen hiri anitza, bere nortasuna, balioak eta bizi-eredua zaintzen dituen. Horretarako, kultura, euskara, gastronomia, zientzia, berrikuntza, merkataritza eta auzoetako bizitzaren arteko oreka mantentzea ezinbestekoa izango da, garapen ekonomikoa, nazioarteko proiektzioa eta bizi-kalitatea bateragarri egiteko.

Gakoa	Helburua
Nortasuna eta bizi-eredua	Nazioartera proiektatzen den hiria izaten jarraitzea, nortasuna, balioak eta bizi-eredua zainduz.
Oreka	Kultura, euskara, gastronomia, zientzia, berrikuntza, merkataritza eta auzoetako bizitza modu bateratuan ulertzea.
Jarduera ekonomikoa	Jarduera ekonomikoaren, sormenaren eta ekimen pribatuaren alde egitea, merkantilizazioaren edo homogeneizazioaren arriskuak saihestuz.
Tokiko bizitza	Tokiko merkataritzak, auzoetako sare ekonomikoak, tokiko produktuak, gastronomiak eta komunitatearen eguneroko bizitzak leku garrantzitsua izaten jarraitzea.
Ekitaldiak	Kultur, kirol, zientzia eta gizarte-ekitaldiek hiriaren bizitasuna eta nazioarteko erakargarritasuna indartzea, hiriaren eskalarekin eta bizi-kalitatearekin bateragarri izanik.
Turismoa	Turismoa hiriaren proiektu partekatuen barruan kokatzea, Donostiaren nortasunaren, kulturaren, gastronomiaren, ezagutzaren eta bizi-kalitatearen ondoriozko jarduera gisa.

Turismoa ez da helburua, Donostiaren nortasunaren, kulturaren, gastronomiaren, ezagutzaren eta bizi-kalitatearen ondoriozko jarduera.

2040ra begira, Donostiak hainbat erronka estrategiko ditu kultura, nortasuna eta nazioarteko posizionamenduaren eremuan. Erronka horiek ez dira guztiz bereziak, eta askotan, elkarri lotuta daude eta hiri-eredu beraren parte dira.

4.1. Erronka kulturalak

2040ra begira, nortasunarekin, tradizioekin, kultur lidergoarekin, digitalizazioarekin, gertuko kulturarekin, kultur ekipamenduekin, sektore ekonomikoarekin eta herritarren parte-hartzearekin lotutako hainbat erronka ditu Donostiak.

Erronka nagusien laburpena:

- Gure nortasuna, tradizioak eta kultur lidergoa mantentzea, frankizia-kulturaren aurka, baina mundu globaletik isolatu gabe.
- Digitalizazioa eta teknologia eguneroko bizitzan txertatzea, ikuspuntu humanista batetik eta arrakala digitalak saihestuta.
- Kanpotik datozen donostiar berriak hiriaren kultur ekosisteman integratzea, beraien parte-hartzea eta ekarpenak sustatuz.
- Gertuko kultura jasangarri eta irisgarria egitea, inor kanpoan utzi gabe.
- Ekitaldi handien eta egunerokoen arteko oreka mantentzea.
- Kultur ekipamenduen mapa eguneratuta izatea, abangoardia eta guztientzako zerbitzuak uztartuz.
- Kultura sektore ekonomiko gisa indartzea.
- Hiritarrentzat, kultura Donostiaren ikur gisa mantentzea, hiriaren errealitatean oinarrituz.

Kulturaren erronka nagusia nortasuna, berrikuntza, irisgarritasuna eta parte-hartzea uztartzea izango da, gertuko kulturaren eta proiektio handiko kulturaren arteko oreka mantenduz.

4.2. Hizkuntzari eta identitateari lotutako erronkak

Euskarak paper estrategikoa du Donostiaren etorkizuneko nortasunean. Komunikaziorako tresna izatetik harago, komunitatea artikulatzeko, elkarkidetza sentimendua eraikitze eta hiriaren nortasun berezia sendotzeko baliabidea baita.

Egungo mundu globalizatuan, hirien arteko antzekotasunak gero eta handiagoak dira, eta homogeneizazio prozesu horren aurrean, hizkuntza propioak berariazko balioa du. Horregatik, Donostia 2040 ikuspegian, euskararen etorkizuna ez da soilik hizkuntza-politikari lotutako gaia; hiri-ereduaren, bizikidetzaren, kulturaren, berrikuntzaren eta nazioarteko posizionamenduaren parte ere bada.

Erronka nagusien laburpena:

- Hitzun komunitate sendo bat izatea, ezagutzatik erabilera erreal eta naturalera jauzia egiteko.
- Euskaraz natural aritzeko espazioak zabaltzea testuinguru informaletan, administrazioan, lan-munduan, aisialdian eta kulturean.
- Gazteekin eta etorkizuneko belaunaldiarekin konektatzea, euskara modernitatearekin, sormenarekin, musikarekin, sare sozialekin eta kultura digitalarekin lotuz.
- Euskararen inguruko diskurtso motibatzaile eta positiboak eraikitzea.
- Donostiaren nazioarteko proiektzioan euskararen presentzia handitzea, hiriaren izaeraren eta bereizgarritasunaren elementu gisa.
- Donostia eleaniztunean euskara inklusioaren, kohesioaren eta herritartasun partekatuaren tresna bihurtzea.

Euskararen erronka nagusia ez da soilik ezagutza handitzea; erabilera erreal eta naturala izan dadin baldintzak sortzea, gazteekin konektatzea eta hiriaren nortasun irekiaren parte bihurtzea ere funtsezkoa da.

4.3. Nazioarteko posizionamenduari lotutako erronkak

Azken hamarkadetan, Donostiak ospea eta aitortza lortu ditu nazioartean bere kultura, gastronomia, bizi-kalitatea, paisaia eta turismoa tarteko. Baina etorkizunera begira, erronka nagusia ikusgarritasuna lortzetik haratago doa: nazioartean islatu nahi den hiri-eredua definitu eta modu koherentean proiektatu behar da.

Erronka nagusien laburpena:

- Donostiaren posizionamendua dibertsifikatzea: gastronomiaz eta turismoaz gain, zientzia, berrikuntza, ezagutza, jasangarritasuna eta bizi-kalitatea indartzea.
- Donostia bisitatzeko hiri gisa identifikatzetik, ikertzeko, ikasteko, ekiteko, inbertitzeko eta bizitzeko erreferente izatera igarotzea.
- Nazioartekotzearen eta nortasunaren arteko oreka mantentzea.
- Donostiaren bereizgarritasuna euskararen, kulturen, gastronomian eta giza eskalako hiri-ereduan oinarritzea.
- Donostiak duen talentua, ezagutza, inbertsioa eta kalitatezko jarduera ekonomikoak erakartzeko gaitasuna indartzea.
- Illunbe, ikerketa-zentroak, unibertsitateak eta berrikuntza-ekosistema Donostiaren posizionamendu berriaren parte bihurtzea.

Nazioartean islatu nahi den hiri-eredua definitu eta modu koherentean proiektatu behar da.

4.4. Hiriari eta bizikidetzari lotutako erronkak

Donostiaren erakargarritasunak aukera ugari sortu ditu, baita hiriaren etorkizunari lotutako hainbat erronka ere. Hurrengo hamarkadetan, erronka nagusia izango da hazkunde ekonomikoa, nazioarteko proiektzioa eta bizi-kalitatea modu orekatuan uztartzea, hiritarren ongizatea eta nortasuna zainduz.

Erronka nagusien laburpena:

- Etxebizitzaren eskuragarritasuna, bizi-kostua eta belaunaldi gazteek hirian bizitzeko dituzten aukerak bermatzea.
- Talentua erakartzeko eta mantentzeko gaitasuna, hiriak bizi-proiektu erakargarriak eskaintzeko duen ahalmenarekin lotzea.
- Espazio publikoaren erabilera, mugikortasuna eta auzoen bizitasuna modu orekatuan kudeatzea.
- Metroaren, abiadura handiko trenaren eta mugikortasun-eredu berrien garapenak ekarriko dituen pertsona-fluxuak modu orekatuan kudeatzea, espazio publikoaren erabilera, auzoen bizitasuna eta hiriaren kohesioa zainduz.
- Jarduera ekonomikoaren, kulturaren, ekitaldien eta eguneroko bizitzaren arteko oreka bilatzea.
- Kultur, kirol eta gizarte-ekitaldien garapena hiriaren gaitasunarekin eta bizikidetzarekin bateragarri egitea.
- Tokiko merkataritza, auzoetako jarduera eta hiriaren benetakotasuna zaintzea.
- Hiri ireki eta dinamikoa izaten jarraitzea, nortasuna galdu gabe.

25

Donostiaren etorkizuneko erronka nagusia hiri erakargarri eta berritzailea izaten jarraitzea da, pertsonen ongizatea, bizikidetzeta eta komunitatearen kohesioa erdigunean jarritz.

Eraldaketarako palankak

2040ko erronkak eta ikuspegi partekatua jomugan, Donostiak kulturari, hizkuntzari, berrikuntzari, turismoari eta gobernantzari, besteak beste, lotutako hainbat palanka aktibatu behar ditu datozen urteetan.

5.1. Kultura eta sormena

Palanka	Zer esan nahi du?	Zertarako?
Kultura osasunerako baliabide gisa	Museotara bisitak, musika-tailerrak edo irakurketa-taldeak bezalako praktikak sustatzea.	Herritarren ongizate emozionalean eragiteko eta antsietateari, bakardadeari edo isolamendu sozialari aurre egiteko.
Adineko pertsonentzako kultura	Kultur programak eta espazioak biztanleriaren zahartze prozesura egokitzea.	Adineko pertsonen parte-hartzea eta harreman sozialak indartzeko.
Kultura deszentralizatzea	Kultur eskaintza hirigunetik eta erdiguneko makro-ekitaldietatik haratago eramatea.	Auzoetako kultur nortasuna garatzeko eta komunitate-loturak sendotzeko.
Herritarrak sortzaile aktibo bihurtzea	Kultur etxeek eta sormen-laboregiek prozesu kolektiboak bultzatzea.	Herritarrak kulturaren kontsumitzaile izatetik, sortzaile aktibo izatera pasatzeko.
Herritar berriak	Beste kulturetatik etorritako biztanle berrien ekarpena kontuan hartzea.	Programak beraientzat eta beraiekin diseinatzeko.
Espazio publikoa	Plazak, parkeak eta kaleak kulturarako gune seguru eta ireki gisa erabiltzea.	Hiri-paisaia humanizatzeko eta merkataritza-harremanetatik haragoko topaguneak sortzeko.
Irisgarritasun unibertsala	Kultur azpiegitura eta zerbitzueta muga fisikoak, prezioak eta hurbiltasuna aztertzea.	Kultura guztientzat irisgarria izan dadin.
Sektorearekiko lankidetzak	Udalak gertuko kultur sektorearekin, pribatua barne, lan egitea.	Elkarlana indartzeko, paternalismotik aldentuz.
Zientzia eta kultura	Zientzia-eragileek eta kultura-eragileek aliantzak bilatzea.	Mugak gainditu eta bakoitzaren indarguneez baliatzeko.
Kultura digitala	Kultur etxeak kultura digitalerako gune hedatu bilakatzeko gaitasunak indartzea.	Eskaintza gaur egungo beharretara egokitzea.
Gazteak	Gazteei zuzendutako eta gazteekin antolatutako programak garatzea.	Gazteen parte-hartzea sustatu eta haien interesekin konektzeko.

Palanka horiek kulturaren dimentsio sozial, sortzaile eta berritzailea indartzera bideratuta daude, eta helburua da kultura herritarren ongizatearekin, auzoetako kohesioarekin, parte-hartze aktiboarekin, irisgarritasunarekin eta gazteen behar berriekin lotzea.

5.2. Euskara eta kultur aniztasuna

Hainbat dira euskarak hirian bizi duen eraldaketa prozesuaren arrazoiak, eta sistema osoan eragiteko, bost palaka detektatu dira.

Palanka	Zer esan nahi du?	Zertarako?
Hiztun komunitatea aktibatzea eta ikusaraztea	Auzoetan, lan-eremuetan eta aisialdian euskaraz modu naturalean eta eroso bizi diren talde kohesionatuak sortzea. Euskararen presentzia soziala kalean, kulturean, merkataritzan eta zerbitzuetan indartzeko.	Hizkuntza-hautua ahalegin kontziente izatetik ohiko erabilerara pasatzeko, eta ohiturak aldatzeko.
Gazteen ekosisteman euskara indartzea	Musikan, sare sozialetan, kirolean eta sormen digitalean euskarazko erreferenteak sustatzea; sare sozialetan eta streaming plataformetan euskarazko edukien sorkuntza indartzea.	Gazteek euskara beren identitatearen, aisialdiaren eta sare sozialen parte sentitu dezaten.
“Euskararen Hiria” marka sendotzea	Euskara Donostiaren marka turistiko, kultural eta ekonomikoaren parte izatea; gastronomian, kultur ekitaldietan eta diseinuan bereizgarri gisa funtzionatzea.	Euskararen prestigioa eta erabilera soziala bultzatzeko, eta hiriak bere hizkuntza propioa duela eta hizkuntza horretan bizi dela harrotasunez erakusteko.
Euskara inklusioarako eta kohesioarako ardatz bihurtzea	Harrera-eredu berriak lantzea eta hizkuntza-komunitateen arteko zubiak eraikitzea.	Donostia eleaniztunean euskara muga izan ez dadin, inklusioarako eta harremantzeko tresna baizik.
Erabilera bermatzeko ekosistema integralak sortzea	Lan-munduan, administrazioan, zerbitzuetan, aisialdian, kulturean eta eguneroko bizitzan euskaraz egiteko aukera errealak sortzea.	Aukerarik gabe ez dagoelako erabilerarik, eta erabilerarik gabe ez dagoelako hiztun komunitaterik.

5.3. Berrikuntza eta ezagutza

Donostiak aukera estrategiko paregabea du ezagutza, zientzia eta sormen hiri gisa sendotzeko, azken hamarkadetan garatu duen ekosistema zabalarari esker. Hiriak nazioarteko erreferente diren ikerketa-zentroak ditu; industria kultural eta sortzaileek gero eta garrantzia handiagoa dute hiriko ekonomian; eta unibertsitate-hiri gisa duen izaerak talentua garatu, erakarri eta atxikitzeko gaitasuna areagotu du.

Ardatza	Zer esan nahi du?	Zertarako?
Ikerketa-zentroak	Hiriak nazioarteko erreferente diren hainbat ikerketa-zentroa ditu, besteak beste, fisika kuantikoan, nanoteknologian, bioteknologian, osasun-zientzietan, adimen artifizialean eta teknologia digitalean espezializatuak.	Donostia ezagutzaren, zientziaren eta berrikuntzaren hiri gisa sendotzeko.
Industria kultural eta sortzaileak	Ikus-entzunezkoak, diseinua, musika, bideo-jokoak eta kultura digitala bezalako sektoreak indartzen ari dira.	Sormen-hiri gisa duen potentziala garatzeko eta sormenari lotutako ekonomiaren pisua handitzeko.
Unibertsitate-hiria	EHU, Deusto, Tecnun eta Mondragon Unibertsitatearen presentziak talentua sortu, erakarri eta atxikitzeko gaitasuna indartzen du.	Ezagutza hiriaren garapenaren erdigunean kokatzeko.
Teknologia aurreratuak	Teknologia kuantikoak, osasunaren eta biozientzien arloko ikerketa, adimen artifiziala eta trantsizio digitala aukera estrategiko gisa ageri dira.	Balio erantsi handiko jarduera ekonomikoak, talentua eta nazioarteko inbertsioa erakartzeko.
Illunbe	Berrikuntza, ezagutza eta talentua biltzen dituen gune estrategiko bihurtzeko aukera dago, ikerketa-zentroak, enpresa berritzaileak, ekintzailetza-proiektuak eta prestakuntza aurreratuak uztartuz.	Hiriko gaitasun zientifiko eta teknologikoak konektatzeko eta nazioartean proiektio handiagoko berrikuntza-gune gisa posizionatzeko.

5.4. Turismo jasangarria eta hiri-eredua

Turismoak garapen zabala izna du azken hamarkadetan, eta ekarpen ekonomiko, sozial eta kultural garrantzitsua egin dio hiriari, baita erronka handiak sortu ere: espazio publikoaren erabilera intentsiboa, mugikortasunaren gaineko presioa, etxebizitzaren inguruko tentsioa eta bizikidetzarekin lotutako kezka berriak.

Testuinguru horretan, Donostiak turismoaren sustapen hutsetik haratago doan ikuspegia garatu du, turismoa hiri-politiken baitan txertatutako fenomeno gisa ulertuz. Ildo horretan kokatzen dira Donostiako Turismo Jasangarriaren 2023-2027 Visit Bizi plana eta GURERA ekimena.

Gakoa	Zer esan nahi du?	Zertarako?
Herritarren ongizatea	Visit Bizi planak herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea jartzen ditu turismo-politiken erdigunean.	Turismoaren garapena herritarren bizi-kalitatearekin bateragarria izan dadin.
Balioa eta oreka	Turismoaren arrakasta ez da soilik bisitari-kopuruaren arabera neurtu behar, hirian sortzen duen balioa, oreka soziala eta ingurumen-jasangarritasuna ere txertatu behar dira.	Turismoaren ekarpena modu zabalagoan eta jasangarriagoan ulertzeko.
Gobernantza eta datuak	Gobernantza parte-hartzailea, datuetan oinarritutako kudeaketa, turismo-fluxuen lurraldeko oreka eta balio erantsi handiagoa duten segmentuen sustapena lehenesten dira.	Turismoaren eragina modu integralean kudeatzeko.
GURERA	Turismoa ez du fenomeno isolatu gisa planteatzen, hiriaren eguneroko bizitzarekin lotutako errealitate gisa baizik.	Turismoaren eta herritarren bizi-kalitatearen arteko oreka iraunkorra bermatzeko.
Nortasuna, eskala eta bizigarritasuna	Donostiaren berezko nortasuna, tokiko merkataritza, kultura, euskara eta auzo-bizitza balioan jartzea.	Masifikazioaren aurrean, hiri orekatua eta bizigarria defendatzeko.
Hiriaren zaintza	Turismoaren kudeaketa orekan, datuetan, herritarren parte-hartzean eta hiriaren zaintzan oinarritzea.	Hiriaren izaera definitzeko, bisitari gehiago edo gutxiago izatetik harago.

5.5. Lankidetza publiko-pribatua eta gobernantza

2040ra begirako erronkak gero eta konplexuagoak dira, eta administrazio bakar batek ezin die bere kabuz erantzun. Hori dela eta, etorkizuneko hiri-ereduak gobernantza kolaboratiboan oinarritu beharko du, erakunde publikoen, sektore pribatuaren, ezagutza-zentroen, gizarte-eragileen eta herritarren arteko lankidetza sustatuz.

Gobernantza-eremua	Zer esan nahi du?	Zertarako?
Gobernantza publiko-publikoa	Udal mailatik harago, Eusko Jaurlaritzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Estatuko Administrazioarekin eta Europako erakundeekin lankidetza estua izatea.	Mugikortasuna, etxebizitza, trantsizio energetikoa, turismoaren kudeaketa, berrikuntza edo talentuaren erakarpina bezalako eskala anitzeko erronkei erantzuteko.
Gobernantza publiko-pribatua	Enpresak, merkataritza-sektorea, ostalaritza, industria sortzaileak, ikerketa-zentroak, unibertsitateak eta hirugarren sektorea inplikatzeko.	Hiriaren lehiakortasuna, berrikuntza-gaitasuna eta etorkizunaren eraikuntzan parte-hartze aktiboa indartzeko.
Ezagutza-ekosistema	Unibertsitateak, ikerketa-zentroak eta berrikuntza-eragileak, ezagutza sortzeaz gain, hiriaren eraldaketarako bazkide estrategiko gisa jardutea.	Hiriaren erronka nagusiei modu kolaboratiboan erantzuteko, administrazioa, zientziaren esparrua, enpresa-mundua eta gizartea elkartzea.
Herritarren parte-hartzea	Herritarren ahotsa, komunitatearen ikuspegia eta gizarte-eragileen ekarpena indartzeko.	Etorkizuneko Donostiaren inguruko erabakiak ikuspegi tekniko edo instituzionaletatik soilik ez hartzeko.

5.6. Hiriaren marka eta kontakizun partekatua

Donostiak kontakizun partekatu bat behar du, hiria nazioartean modu koherentean aurkezteko. Kontakizun horrek tradizioa eta modernitatea, euskara eta kultura propioa, gastronomia, zientzia eta berrikuntza, benetakotasuna eta komunikazioa uztartu behar ditu.

Partekatutako kontakizunaren osagaiak	Edukia
Nortasun garaikidea	Tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen hiri-eredua.
Euskara	Marka globalaren elementu propio eta kohesionatzaile gisa.
Kultura eta sormena	Hiriaren motor ekonomiko eta identitario gisa.
Gastronomia	Nazioarteko aintzatespena duen ezaugarria, tokiko kultura, produktua, talentua eta berrikuntza gastronomikoa uztartuz.
Zientzia eta berrikuntza	Ezagutzan, teknologia aurreratuetan eta ikerketan oinarritutako hiri gisa posizionatzeko.
Benetakotasuna	Hiriaren eguneroko bizitzan oinarritutako kontakizuna, ez soilik turismora bideratua.
Komunikazio partekatua	Erakundeak, enpresak eta komunitatea norabide berean aritzeko.

DONOSTIA 2040: ikuspegi partekatu baten aldera

Donostia, hiri...

- kultural eta sortzailea,
- euskalduna testuinguru eleaniztun batean
- ireki eta kohesionatua,
- nortasun propioa duena,
- jasangarria eta gizatiarra,
- berritzailea eta ezagutzarekin konektatua,
- nazioartean ezaguna eta aitortua,
- non kultura, euskara, nortasuna, berrikuntza eta bizikidetza hiri-proiektuaren parte diren.

ITURRIAK:

- MEMORIA de Donostia Kultura 2025
- Informe sobre los programas dirigidos a la infancia, adolescencia y juventud donostiarra. Departamento de Juventud, 2025.
- Estudio de los Equipamientos Culturales de San Sebastián. Kultiba para Donostia Kultura, 2026.
- Estudio Prospectivo de Datos Demolingüísticos de San Sebastián, plazo: 2036 (Siadeco 2024, por encargo del Ayuntamiento de San Sebastián)
- Plan Estratégico para la Promoción del Euskera en San Sebastián 2026-2036 (Elhuyar-Ayuntamiento de San Sebastián)
- Impacto Económico del Euskera (Siadeco 2020 por encargo de la DFG)

00/

**KULTURA, IDENTITATEA ETA
NAZIOARTEKO
POSIZIONAMENDUA**



www.donostia.eus/donostiarra2040